

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2216

*338/2020 EBAZPENA, otsailaren 25ekoa, Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Jose Eulalio Bárcena Llona jauna aldi baterako izendatzen baita Osakidetzako Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko Neurologiako Atal Sanitarioko buru (Patologia Neuromuskularra), lau urteko eperako eta luzatzeko aukerarekin.*

Abuztuaren 14ko 1319/2019 Ebazpenaren bitartez, deialdia egin zen Osakidetzako Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Neurologiako Atal Sanitarioko Buruaren (Patologia Neuromuskularra) lanpostua lehiaketaren bidez betetzeko.

Balorzio Batzordea aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Jose Eulalio Bárcena Llona jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori izendatzea Osakidetzako Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Neurologiako Atal Sanitarioko buru (Patologia Neuromuskularra).

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko, 8/1997 Legeko 28. artikuluko Hirugarren Arau Komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko, 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko, 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, zera,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jose Eulalio Bárcena Llona jauna Osakidetzako Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Neurologiako Atal Sanitarioko buru (Patologia Neuromuskularra) izendatzea aldi baterako.

Bigarrena.– Aldi baterakoa izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua Hirugarren Arau Komunean xedatutakoarekin bat etorritz, eta data honetatik aurrera ondorioak izango ditu: 2020ko martxoaren 1a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitutakoan lanpostua utziko du, ezpada luzapena onartzen, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko, 8/1997 Legeko 28. artikulua Hirugarren Arau Komunean ezarritakoaren arabera.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kargutik kendu ahal izango dute, aldeztu aurretik kontrako espediente dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua 6. Atalean aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Interesdunei eta Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Pertsonaleko Zuzendaritzari Ebazpen honen berri ematea.

2020ko ekainaren 8a, astelehena

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza zuzendari nagusiari, Ebazpen hau EHAA n argitaratzen den hurrengo egunetik hilabeteko epean.

Barakaldo, 2020ko otsailaren 25a.

Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESIko zuzendari gerentea,  
SANTIAGO RABANAL RETOLAZA.